



BORTZIRIETARAKO
EUSKARAREN II.
PLAN ESTRATEGIKOA
2021-2024



BORTZIRIETAKO
EUSKARA MANKOMUNITATEA

**2024ko planari
JARRAIPENA**

⇒ SARRERA

Bortziritako Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2021-2024) laugarren eta azken urteko jarduera planari buruzko memoria da hau. Memoria honen helburua da 2024ko planak ildo zuzen eta arloz arlo jasotzen dituen jardueren gaineko azalpen eta ebaluazio laburra egitea.

Jardueren ebaluazioa modu bisualean egin nahi izan da. Hortaz, jarduera burutu den edo ez, edo bertze modu batean garatu den, berde, gorri eta laranja ageri da. Eta horien azpian jardueraren ebaluazio kualitatibo laburra agertzen da. Jakina, 2021-2024 planaren bukaeran memoria sakonagoa egingen da, kuantitatiboki eta kualitatiboki datu gehiagoz hornitua.

Beraz, eta memoria jasotzen duen dokumentu honetan hasieratik planaren egikaritze maila ikusteko, semaforo moduko laburpena aurreratzen dugu. Berdez daude aurreikusi bezala garatu diren jardueren kopurua, gorri burutu ez direnak (denbora faltagatik, bertan behera gelditu direlako, geure aldetik aurreikusi baina bertze eragileekin elkarlana eskatzen zutelako, ez delako horretarako beharrik izan, etab.) eta laranja bukatu gabe gelditu direnak edota aurreikusia ez zegoen modu batean garatu direnak:

ILDOA	JARDUERA KOPURUA	BAI		EZ		ERDIZKA	
		Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
1. SOZIALIZAZIOA (<16 urte)	25	20	80,0	3	12,0	2	8,0
2. HIZTUN BERRIAK	8	6	75,0	2	25,0	0	0,0
3. GIZARTE ERABILERA	71	39	54,9	23	32,4	9	12,7
4. CORPUSA	2	1	50,0	0	0,0	1	50,0
5. KUDEAKETA	26	19	73,1	2	7,7	5	19,2
GUZIRA	132	85	64,4	30	22,7	17	12,9

Horiez gain, aipatu behar da urteko jardueren planean aurreikusiak ez ziren 5 jarduera garatu direla. Laster ekin behar diogu 2021-2024 tarteko plan estrategikoaren ebaluazio osoari, horren arabera hurrengo plangintzaldia prestatzeko.

Arantzan, 2025eko ilbeltzaren 20an
Euskara teknikariak
Urko Ikardo Enparan eta Patri Arburua Etxeberria

⇒ 2024KO JARDUERAK



Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN (<16 URTE) SOZIALIZAZIOA

Arloa: ETXEA		Lehentasuna: ALTUA		
JARDUERAK	EBALUAZIOA/JARRAIPENA			
1. Haur jaioberriak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurrak euskaraz sozializatzearen eta bereziki etxean euskarak ahalik eta presentzia handiena izatearen garrantziaren inguruan.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	Uztailaren 31ra arte Bortzirietan jaiotako eta bertan erroldatu diren 23 haurren familiei "Ongi etorri, jaioberri!" materiala bidalia.			
2. Haurrak eskolatu berritan eskolak eta familiak beren sozializazio prozesuan betetzen dituzten funtzioei buruzko mezuak eta euskarriak (idatzizko euskarriak, geletako bilerak...) sortu eta 3 urteko haurrak dituzten familiei helarazi.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	HH 3 urteko geletan hasi diren 59 haurren familiei ale bana banatua, ikastetxeen bidez. Normalean gelako bileran banatzen dute materiala, eta izen bereko bideoa erabiltzen dute familiei azalpena emateko.			
3. Euskaraz ez dakiten gurasoei hitzaldiak, tailerrak, baliabideak... eskaini gurasoek haurra euskaraz sozializatzeko prozesuan bete dezaketen funtzioak eta etxean euskarak presentzia ahalik eta handiena izatearen garrantziaz.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	Denbora eta aurrekontu faltagatik ez dugu antolatu.			
4. Gurasoen hizkuntza ohituretan eragiteko tailerrak antolatu, bereziki UEMAREN HEDATU programaren bitartez.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	UEMAREkin elkarlanean <i>Ispiluari begira</i> tailerra antolatu dugu, haurrek hizkuntza ohiturak ezagutzeaz gainera, haiekin batera euskararen egoeraz hausnarketa egiteko eta gurasoak familia transmisioaren garrantziaz jabetzeko. Tailer hauek egin dira aurten: <ul style="list-style-type: none"> - Irain, urtarrilak 17: LH2ko ikasleekin. Saioan landutakoaren bideoa bidali zitzaion familiei. Hurrengo ikasturte hasieran, urriaren 28an, berriz egin da tailerrak LH2ko ikasleekin; bigarren zatira guraso bakarra etorri da eta berriz ere laburpen bideoa egin dute familiei bidaltzeko. - Arantza, urtarrilak 25: 10 ikasle, tutorea eta 8 familia. - Igantzi, otsailak 26: LH1-2ko ikasleen 8 guraso. Urteko urtera horrelako tailer gehiago antolatzen ditugu eskoletan eskaintzeko, baina familien parte hartzea ez da sobera handia izaten ari.			

5. Teknikarien sareak kudeatzen duen era.eus webgunea elikatu eta edukiak zabaldu.	BAI	EZ	ERDIZKA
6. Hurrekin erabiltzeko euskarazko kantu, jolas, formula eta antzekoen gaineko baliabideak eskaini.	BAI	EZ	ERDIZKA

Teknikarien sareko Aisialdi Lantaldeko kide garez, [udaleku itxiei buruzko informazioa](#) eman dugu. Irailean ere artikulua egitea egokitu zitzagun, kasu horretan [bertso eskolei buruzko informazioa](#) emateko.

Euskaraz jolasean joko eta jostailuen erakusketa Lesakan, Dindaia Fundazioaren eskutik, azaroaren 28 eta 29an. Balorazio ona egin da. Guzira 100dik goiti bisita zenbatu dira. Horrez gain, 2 urteko haurrak dituzten 51 familiei (2022an jaiotakoak) *Irria* aldizkariaren urteko azken aleak bidali zaizkie etxeetara, ondoren harpidetza egin dezaten animatuz. Harpidetza datuak ondoren eskuratuko dira.

Arloa: ESKOLA		Lehentasuna: ALTUA								
JARDUERAK		EBALUAZIOA/JARRAIPENA								
7. 0-3 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, euskarazko murgiltze eredu haurta dezaten aholkatuz.	BAI	EZ	ERDIZKA							
8. Hezkuntzaren maila guzietan ikasleei baliabideak eta formakuntza eskaini, hizkuntza jarreraren inguruan eta zehazki arnaguneen garrantziaren inguruan; ekintza UEMAREN HEDATU programaren bitartez garatuko da bereziki, baita EIBZren Motibazioa Sustatzeko Baliabideak blogaren bidez ere.	BAI	EZ	ERDIZKA							

Beran 2021-2023 bitartean jaiotako haurren familiei (59) eskutitza eta D ereduaren aldeko argudioak hainbat hizkuntzatan. Horrez gain D ereduaren aldeko argudioak hainbat hizkuntzatan ematen dituen kartela Beran herrian barrena eta Bortzirietako ikastetxeetan jarri ditugu. Aurrematrikulazioaren emaitzak:

2022-2023			2023-2024			2024-2025		
A	B	D	A	B	D	A	B	D
2	1	30	2	1	36	2	3	29
6,06	3,03	90,9	5,1	2,6	92,3	5,9	8,8	85,3

Saiakera berezia egin genuen ikasturtearen hasieran, ikastetxez ikastetxe, UEMAREN HEDATU programa azaltzeko. Inoiz baino tailer eta jarduera gehiago atera dira aitzinera (arestian aipatutako Ispiluari Begira-z gain):

- *Bagoaz* tailerra (LH6): Lesakako Irain (maiatzak 28).
- *Batxitailerra* Toki Ona institutuan: ekainareko aurreikusia zegoen baina institutuak bertan behera utzi du.
- Bixitailerra (DBH1-2): Arantzako eskolan (apirilak 22), Labiaga Ikastolan (apirilak 22), Toki Ona institutuan (ekainak 7).

2024-2025 ikasturteari dagokionez, Bagoaz tailerraren saio hauek daude aurreikusiak:

- Landagain (Etxalar): maiatzak 27

	<ul style="list-style-type: none"> Tantirumairu (Lesaka): ekainak 5 Urtarrilean eskaintza oroitaraziko zaie ikastetxeei.		
11. Bortzirietako ikastetxeen eta Iparraldeko mugakide diren herrietako ikastetxeen arteko harremanak sustatu (euskararen erabilera, hizkera ezberdinen ezagutza, motibazioa, kontzientziazioa, identitatea...): Mugaldeko Udalekua	BAI	EZ	ERDIZKA
	Oiartzungo Udalaren ekimenez antolatutako udalekua, mankomunitatearekin eta Sara eta Urruñako udalekin batera. Ttur-ttur Euskaltzaleen Elkartearen bitartez antolatu dugu. Udaleku ibiltari honek Oiartzun-Lesaka-Bera-Sara-Urruña ibilbidea eginen du, uztailaren 15-21 bitartean. Eskaintza 2009-2010 urteetan jaiotako gaztetxoei egin zaie. Interesa sortu du jarduera honek, batez ere Bortzirietan. Guzira 28 gaztek izen eman dute, eta horietatik 14 dira Bortzirietakoak (bortz herrietako parte hartzeak). Plan estrategikoan 11. jarduera modura aurreikusia zegoen mugaz gaindiko ekimen bat, ikastetxeen artekoa, baina aisialdiaren ikuspegitik garatzea hobetsi dugu. 2025eko edizioa prestatzen hasi gara irailean. Antolatzaileak lau erakunde horiek izanen dira berriz, baina inguruko eragile gehiagok interesa agertu dute eta aztertuko da haien parte hartzea nola txertatu. Euroeskualdeari proiektua aurkeztu zitzaion eta proiektu honetarako 9.000 dirulaguntza (aurrekontuaren % 50) onartu dute.		
12. Hezkuntza arloko eragileekin mahai teknikoa sortu: jarraipena eman	BAI	EZ	ERDIZKA
	2023an ikastetxeekin sortutako elkarlan foroarekin jarraitzen dugu. Aurten hiru aldiz elkartu gara. Foro horren bitartez 13 eta 14 jarduerak lantzen ari gara, baita hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzeko protokolo komuna ere.		
13. Ikasleek euskaraz sozializatzeko dituzten hutsuneak aztertu eta baliabide egokiak erabaki: hezkuntzako mahai adostutakoa, bertako hizkeraren lanketa, garatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Bertako hizkerari buruzko trebakuntza irakasleentzat: Lekarozko ILZrekin elkarlanean, 8 orduko trebakuntza izan dute irailean eta urrian bitartean Arantza, Etxalar, Igantzi eta Lesakako ikastetxe publikoetako nahiz Lesaka eta Berako ikastoletako irakasle guzietan. Bertze bi ikastetxeek 2024-2025 ikasturtean eginen dute. Emailea Maite Lakar izan da. Antolaketaz gu arduratu gara eta Lekarozko ILZrekin elkarlanean aritu gara. Jaso ditugun balorazio guztiak hagitz onak izan dira.		
14. Ikastetxeen hizkuntza planean laguntza teknikoa eskaini eta hizkuntza irizpideak landu: hezkuntza mahai adostutakoa, hizkuntza irizpideen protokoloa, garatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Hizkuntza irizpideak ikastetxeetan: aitzineko ikasturtean dokumentu bat landu genuen, ikastetxe barruko nahiz kanpora begirako funtzionamenduan euskararen erabilera eta ohiko ele biko funtzionamenduan urratsak egiteko, udaletan betetzen diren UEMaren irizpideak aintzat hartuta. Irailean aplikatzen hasteko oinarriak jarri genituen, eta urtarrileko bileran baloratuko ditugu egindako urratsak. Bereziki ikasturte hasieran egiten diren guraso bileretan hizkuntzari emandako trataeran izan diren aldaketak baloratuko dira.		

"Euskara eta kulturartekotasuna" proiektua Ricardo Baroja I.P.an pilotatu	BAI	EZ	ERDIZKA
	Berako Ricardo Barojako I.P.an garatzen ari den proiektuaren talde eragilean parte hartu dugu. Une honetan proiektua eskolaren gain dago gehiago, eta gure aldetik jarraipena egiten diogu. Eskolak urrats handiak egin ditu, baina guraso elkartearen aldetik kostatzen ari da proiektuarekin bat egitea eta praktikan paratzea.		

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA/JARRAIPENA		
15. 5 urteko haurrak dituzten familiei zuzendutako euskarriak sortu eta helarazi, haurren aisialdia euskaraz izatearen garrantzia azalduz.	BAI	EZ	ERDIZKA
	"Eta eskolatik kanpo, zer?" materialaren zabalkundean LH1eko 59 ikasleen familiei, ikastetxeen bitartez. Haurren denbora librean eta eskolaz kanpoko jardueretan euskarak ahalik eta presentzia izatearen garrantzia azpimarratzen da. Izen bereko bideoa ikastetxeen eskura jarri da, gelako bileran erabiltzeko.		
16. Guraso elkarteekin eta herrietako kultur eragileekin lanketa egin haur eta gaztetxoentzako kultur eta aisialdi eskaintzaren gaineko hizkuntza irizpideei buruz.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gai honi ez diogu heldu. Oro har, mota guztietako elkarteekin hizkuntza irizpideak lantzeko asmoa genuen UEMArekin elkarlanean, baina hurrengo planerako erronka izanen da arlo honetan eragitea.		
17. Euskarazko produktuen katalogoa (paperezkoa, digitala eta bertzelako euskarriak) banatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Katalogoaren 900 ale banatu dira, modu honetan: 2022-2023 urteetan jaiotako haurren familiei posta arruntaren bidez, eta 3-14 urte bitarteko haurren familiei ikastetxeen bidez. Hortaz aparte, liburutegi eta liburu dendetan ere banatu dira aleak. Komunikazioa ere landu da.		
18. Euskarazko udaleku itxien berri eman.	BAI	EZ	ERDIZKA
	LH eta DBHko ikasleen familiei euskarazko udaleku itxien eskaintzaren berri eman diegu ikastetxeen bitartez, baita ERArekin bidez eta sare sozialen bitartez ere.		
19. <i>Pauso</i> eta <i>Salto</i> udalekuak (UEMA) sustatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	14-18 urte bitarteko gaztetxoei udaleku hauen berri eman zitzaizkien. Bortzirietatik izen eman duten gaztetxoaren kopurua: 3 mutiko aranztar. Aurten Salto udalekua Arantzatik abiatu da, bi txandatan.		
20. Era.eus webguneko eskualdeko kultur eta aisialdi agenda elikatu eta edukiak zabaldu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Era.eus agenda elikatu dugu. Azaroaren 22ra arte Bortzirietako 26 ekitaldi iragarri ditugu.		
21. Udaleku irekiak antolatatu.	BAI	EZ	ERDIZKA

	Udalekuetan 238 neska-mutikok parte hartu dute. Guzira 24 begirale aritu dira lanean (ez denak aste guzietan). Horrez gain, irailean udal ordezkari eta eragileekin elkartu gara, hurrengo urteetako udalekuetako oinarriak finkatzeko, eta 2025etik aitzinera udalekuen zerbitzua lizitzatzeko prozedura landu dugu.		
22. Begirale, hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknika antolatu eta eskaini (ikastaroak, tailerrak, materiala eta gainerako baliabideak), hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Udalekuetan lan egin duten begiraleentzako formakuntza egin dugu ekainaren 27an.		
23. Haur eta gaztetxoek euskarazko kultur kontsumoa bultzatzeko bideoak (irakurzaletasunaren inguruan, euskal musikaren kontsumoaren inguruan...).	BAI	EZ	ERDIZKA
	Jarduera honi ez diogu heldu. Ikusteko dago hurrengo plan estrategikoan landuko dugun.		
26. "Irakurriz gozatu" egitasmoan parte hartu ("Beitu" agerkari digitala).	BAI	EZ	ERDIZKA
	2023-2024 ikasturtea: Urtarrilaren 18an aurkezpena egin genuen DBH4ko geletan, Ane Urrutia gazteak eta euskara teknikariak. Balorazio txostena jaso dugu. 93 ikasletik 69k egin dute harpidetza. Eduki digitalen euskarazko kontsumoari eta irakurzaletasunari buruzko datu batzuk jaso ditugu. 2024-2025 ikasturtea: Abenduaren 11n aurkezpena egin dugu Toki Ona institutuan. 77 ikasletatik 26k egin dute harpidetza.		
27. Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko. Etorri berrientzako harrera protokoloa eta familia harreragileak.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Jarduera honek bertze bide bat hartu du, beharrezkoa zen ikastetxeek etorri berrientzako harrera protokoloa izatea, eta hori egin dugu. Guraso harreragileena protokolo horren barneko egitasmoa litzateke, eta oraindik ez dugu lortu abiatzerik. Ikastetxeetako etorri berrientzako harrera protokoloa, berriz, egina eta H-Eus mahaian aurkeztu dugu.		
29. Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.	BAI	EZ	ERDIZKA
	<i>Solasean</i> programa: 2023-2024 ikasturteari bukaera eman diogu. Bi talde aritu dira, bi begiralerekin. Lesakakoan 11 partaide izan dira eta Beran 10. Hurrengo tutoreekin eta Topaguneko teknikari eta dinamizatzaileekin egindako bileran balorazioa ona izan zen.		

2024-2025 ikasturteari hasiera eman diogu, bi talde eta bi begiralerekin. Lesakan aurten 4 partaide bertzerik ez dira, eta Beran 13.

Euskaraz kilika programaren sustapena:

Dindaia Fundazioak antolatu eta Nafarroako Gobernuak finantzatzen duen programa da. Solasean-en helburuak ditu eta antzera egiten da, baina online. Bortzirietan mankomunitateak sustatzen du. Aurten urtarriletik azarora bitarteko hilabeteroko txandetan Bortzirietako 1-6 haur bitarte ibili dira egitasmo honetan, Irain eta Ricardo Baroja ikastetxeetakoak.



Ildoa: HIZTUN BERRIAK

Arloa: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA		Lehetasuna: ALTUA		
JARDUERAK	EBALUAZIOA			
32. Euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko urteroko matrikulazio eta sentsibilizazio kanpaina, motibazio praktikoetan eta identitarioetan oinarrituta, eta mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	Urtarrilaren 29an webgunean albistea argitaratu genuen, baita sare sozialetan zabaldu ere. Iraileko matrikulazio kanpaina egin dugu: euskara ikastea, euskal nortasuna eta integrazioa izan dira gai nagusiak. “Euskaldunak garen eta izan nahi dugunez gero” izeneko bideoa sortu dugu Katubirekin, eta hiru ikasle izan dira protagonista: Adela, Araceli eta Kevin. 217 ikustaldi izan ditu. Aurten ikastetxeetan kanpaina egin dugu: posta elektronikoz bidali dizkiegu gurasoentzako gutunak eta euskarriak, baina ez dugu erantzunik jaso, eta ez dakigu zenbaiterainoko oihartzuna izan duen. 56 ikaslek eman dute izena, joan den urtean baino zertxobait gehiagok.			
35. Ikaste prozesuetan euskalkidunen presentzia areagotu, euskalkidunak eta euskara ikasleak harreman zuzenean jarriz (euskalkia eta haien jakintza, usadioak, etab. transmititu).	BAI	EZ	ERDIZKA	
	Leire Errandonearekin eta Mikel Tabernarekin egin genuen saiakera ikasturte akabailan antolatzeko, baina ezinezkoa izan zen. Euskaltegiko irakasleekin solastatu ginen gai honetaz eta erabaki genuen ekintza egiteko garairik onena Aste Santu aitzineko astea dela. Beraz, heldu den urtean martxo-apirilean egingen dugu.			
37. Euskara ikasten ari direnei dirulaguntza eman.	BAI	EZ	ERDIZKA	
	2024-2025 ikasturterako deialdia onartu genuen apirilean eta mankomunitate bakarrari buruzko aipamena egin genuen. Uztailean, 2023-2024 ikasturteko bigarren zatia ebatzi dugu. Guztira 45 eskatzaile izan dugu, 39ri dirulaguntzaren 2. zatia zegokien, eta 4k eskaera ekainean egin dute eta dirulaguntzaren kopuru osoa hartu dute. Ikasle bati aitzindutako dirulaguntza bueltatzea eskatu zaio, ez baitu gutxieneko parte hartze baldintza bete. 4.445,59 € banatu da dirulaguntzetan. Iraia-urrian, 2024-2025 ikasturterako matrikulazioarekin, dirulaguntza eskatzeko lehenbiziko epea ireki dugu, urriaren 11ra arte. 49 eskaera jaso dira, baina ikasle batek baja eman dute ikastaroa hasi eta berehala. Horietako bati dirulaguntza ordaindu zaio			

	bajaren berri izan baino lehen, baina bere kabuz itzuli du aitzindutako dirulaguntza. Ebazpena azaroaren 8an onartu da 48 ikasleri dirulaguntza emateko. 12.676,77 € banatu da dirulaguntzetan.		
39. Bortzirietako Euskaltegiarekin koordinazio gune iraunkorra.	BAI	EZ	ERDIZKA
	3 bilera egin ditugu, martxoaren 27an, ekainaren 21ean eta urriaren 11n.		
40. Bortzirietako Euskaltegiari dirulaguntza ematea.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Otsailaren 8an euskara mankomunitateak eta Euskaltegiak hitzarmena sinatu dute. Dirulaguntzaren hiru zatiak ebatzi ditugu: <ul style="list-style-type: none"> • Martxoaren 27an lehenbiziko zatia ordaintzea ebatzi da: 11.000 €. • Uztailaren 2an bigarren zatia ordaintzea ebatzi da: 11.000 €. • Azaroaren 14an hirugarren zatia ordaintzea ebatzi da: 11.099,82 € €. • GUZTIRA: 33.099,82 €. 		

Arloa: TRANTSIZIOA IKASTETIK ERABILTZERA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
	BAI	EZ	ERDIZKA
42. Euskalduntze prozesuan daudenei erabilerara jauzia egiteko bide eman: Solaslaguna, Mintzodromoa eta mintzapraktika egitasmoak.	<p>2023ko urritik 2024ko ekainera bitarteko parte hartzeko datuak honako hauek izan dira: 25 solaslagun, 5 taldetan banatuta, 4 Beran (horietako bat gurasolagun taldea), eta borzgarrena Lesakan. Hala ere, Berako talde bat eta gurasolagunena kili-kolo gelditu dira. Zenbait jarduera osagarri egin dituzte.</p> <p>Dinamizatzaile berriak, Mertxe Gerrikok hartu du martxa eta elkarlanean ongi ari gara. Udazkeneko sustapena egin dugu. 2024-2025 ikasturterako, honako datu hauek ditugu:</p> <p>1. Taldea (Bera): Bidelariak (7) eta bidelaguna (1) = 8 2. Taldea (Bera): Bidelariak (4) eta bidelaguna (1) = 5 3. Taldea (Lesaka): Bidelariak (6 eta bidelagunak (2) = 8 GUZTIRA: 21</p> <p>Ekintza osagarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Borborraldia Etxalarren (20241012): parte hartze txikia, 4 lagun. • Mintzodromoa Beran (20241129): 17 parte hartzaile, balorazio hagitz ona. 		
43. Elaide.eus garatu, Nafarroako euskara zerbitzuok elkarlanean sortutako webgunea, euskara ikasleak motibatu, eta erabilerarako jauzia emateko baliabideak eskuratzeko.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Agenda elikatzeaz arduratu gara, eta ari gara berriz ere behar bezala eguneratzen.		

	<p>Sareko plan estrategikoa prestatu dugu eta lan banaketan berritasuna izan dira; proiektu honetako kide da Urko Ikardo. 2025 urterako plana prestatu dugu (ikasleen artean azterketa egin nahi dugu, zenbait berrikuntza egin nahi ditugu, etab.).</p> <p>https://elaide.eus/</p>
--	---

Arloa: KANPOTIK ESKUALDERA ETORRITAKOAK		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
<p>44. Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara+, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.</p>	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p>4 saiakera egin ditugu zaintzaileentzako ikastaroa Berako zahar etxean antolatzeko: maiatzean, ekainean, irail-urrian eta azaroan. Irail-urriko eskaintzaren kasuan, izen emateko epean bi langilek baino ez dute eman izena, eta azaroko azken saiakeran ere ikusi dugu Berako zaharren egoitzan ez zela gutxieneko ikasle kopururik ikastaroa aitzinera eramateko. Ikastaroak antolatzeko Baztango eta Bidasoaldeko AEK-rekin izan gara harremanetan, baita Berako eta Lesakako zaharren egoitzekin ere.</p>		



Ildoa: GIZARTE ERABILERA

Arloa: AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
	BAI	EZ	ERDIZKA
46. UEMArekin baitan eta UEMArekin elkarlanean arnaguneak balorean jartzeko herritarrentzako saioak eta euskarriak.	BAI	EZ	ERDIZKA
	<ul style="list-style-type: none"> • 3. eta 8. jardueretan aipatu diren tailer eta saioak helburu honekin lotuak daude. • Korrika kulturalaren programazioaren baitan eta Bor-bor taldearekin elkarlanean, <i>Bizkarsoro</i> filmaren emanaldiak eskaini dira herriz herri. • Horrez gain, Korrikaren zer den hainbat hizkuntzatan azaltzen duen eskuorria, UEMAK prestatua, egokitu, hizkuntza gehiagotara itzuli eta Bortzirietan hedatu dugu. • <i>Bixitailerra</i>: Labiaga Ikastolako DBH2ko 27 ikasleei eskaini zaie, apirilaren 22an, eta Toki Ona Institutuko DBH 1-2ko 58 ikasleei (3 saio), ekainaren 7an, UEMArekin eskutik. Tailerraren helburua da gazteak ahalduz eta haien hizkuntza ohiturak aztertzea. • <i>Batxitailerra</i>: Toki Ona institutuko batxilerko ikasleei zuzendutako tailer hau ekainean eskaini behar zuen UEMAK. Hitzordua finkatua bazen ere, institutuak bertan behera utzi zuen. 		
47. “Arnasa gara” kanpainari jarraipena egitea.	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p><i>Arnasetik</i> bideo-sormen lehiaketa. UEMAK antolatzen du eta mankomunitateak sustatzen du ikastetxeetan. DBHko modalitatean Arantzako DBHko ikasleek hiru bideo aurkeztu dituzte. LHko modalitatean Arantzako eskolako ikasleek bideo bat aurkeztu dute, Irain eskolakoek bertze bat eta Solasean programako Lesakako taldeak bertze bat. Irain eskolako bideoa finalisten artean egon da.</p>		
48. Hizkuntza praktikei buruzko gogoeta eta sentzibilizazioa etorri berriei dagokienez (BHHP1).	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p>UEMATik Egin nirekin ere euskaraz kanpaina abiatu zuten joan den urteko azaroan; euskarriak banatu zituzten eta hedabideetan zabandu zuten. Hemen lanketa zehatzagoa egin gabe gelditu ginen, prentsurrekoa egitea proposatu baziguten ere. Izan ere, aniztasun bestarekin hagitz lanpetuak ibili gara, eta komunikatiboki horri eman izan nahi diogu oihartzun handiena. Gure asmoa zen udazkenean aniztasun taldea biltzearekin kanpaina honen zabalkunderako prentsurrekoa antolatzea, baina UEMATik heldu den urte hasierarako atzeratu dute kanpainaren aurkezpena. Goian aipatu bezala, hurrengo</p>		

¹ Bortzirietako Hizkuntza Harrera Planean jasotzen da.

	kanpainako protagonistak izanen ditugu, bertzeak bertze, ostalaritzako langileak. Bideorako langile euskaldun arrazializatu bat behar zuten eta euskara mankomunitatetik lortu dugu herritar bat horretara animatzea.		
Errenta aitorpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina	BAI	EZ	ERDIZKA
	Kanpaina UEMArekin eskutik dator eta gure gain gelditzen da Bortzirietan zabalkundea egitea. Hala egin genuen errentaren kanpaina hasi bezain laster, ohiko bideak erabilia (komunikabideak, webgunea eta sare sozialak).		
51. Bortzirietako euskararen berreskurapen prozesuari buruzko ikus-entzunezkoa egin eta zabaldu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Katubi enpresarekin elkarlanean lantzen ari gara. Eduki lantaldea osatu genuen bi herritarrekin, eta bertan aritu gara egindako grabazioetatik dokumentalerako pasarteak eta gaiak hautatzen. Maiatzean dokumentalaren zirriborroa eta gidoi teknikoa ontzat eman dira eta urrian dokumentalaren proba ikusi dugu. Abenduan azken proba ontzat eman eta urtarrilean izanen dira "Gogoa pauso, pausoa bide" dokumentalaren aurkezpen emanaldiak.		

Arloa: TOKIKO ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
52. Udal hautetsiak eta langileak sentsibilizatu eta motibatu euskararen normalizazioan duten egitekoari dagokionez, UEMArekin elkarlanean. Lidergoa partekatu eta aktibatu, euskarak zehar lerroko gai bezala dagokion tokia izan dezan.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Legegintzaldi hasieran antolatu ohi ditugu UEMArekin eta BEMi buruzko aurkezpenak eta 2023an egin genituen gehienak, baina Arantzako egin gabe gelditu zen, udala beranduago osatu baitzen, azaroan propio hauteskundeak egin ondotik. Saioa otsailaren 16an egin zen.		
54. UEMArekin koordinatu eta elkarlanean ari, udal erabilera planen gauzapenean eta jarraipenean.	BAI	EZ	ERDIZKA
	UEMA udaletako erabilera plan berria prestatzen ari da. Horiek lantzeko eta udalerriko planei jarraipena egiteko bilerak egin dira herriz herri maiatzean. Erabilera planen dokumentuak aurkezteko bileran egin dira Beran eta Lesakan abenduan, ondoren osoko bilkuretara eramateko. Herri txikietakoak urte hasieran egingen dira. Bertzalde, udal gehienetan informatika zerbitzua eskaintzen duen Animsarekin euskararen erabilerak urratsak egin dituzten prozedura bat abiatu dugu UEMArekin elkarlanean.		
56. Udalen menpeko erakundeetan (kiroldegiak, musika eskolak, zahar etxeak...) erabilera plan berezituak egin eta hizkuntza irizpideak landu, UEMArekin elkarlanean.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Bereziki Beran eta Lesakan egiten ditugun udal planaren jarraipen bileretan gaia aipatzen badugu ere, alegia, erakunde hauek behar dituztela euren planak eta aplikatu behar dituztela UEMArekin irizpideak, ez diogu gaiari berariaz heldu. Berez UEMArekin teknikariarekin elkarlanean lantzeko asera da eta bion egutegiak koordinatu behar ditugu.		

57. Bortzirietako mankomunitate berria egituratzen denean hizkuntza irizpideak eta plana landu abiatzerako.	BAI	EZ	ERDIZKA
58. Hizkuntza eskakizunen jarraipena egin eta udal administrazioetan sartzeko euskara probak bideratu.	BAI	EZ	ERDIZKA
59. Bortzirietako udal-mankomunitateetako langileen euskarazko prestakuntzarekin jarraitu.	BAI	EZ	ERDIZKA
60. Udaletan eta udalez gaindi egiten diren hirigintza proiektuetan hizkuntzaren eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak proposatu (ELE tresnaren aplikazioa).	BAI	EZ	ERDIZKA

Mankomunitate bakarraren proiektuarekin lotuta. Momentu honetan orain arteko erakundeak desagiteko fasea jarri da abian.

Hauek izan dira orain arte bideratu ditugun probak (4):

- Hiri-hondakinetako zerbitzu anitzetako langilea (Api. 26). Euskarabidea.
- Zerbitzu anitzetako peoia Igantzin (Mai. 27). BEM.
- Lesakako arkitekto teknikoa (Ira. 12).
- Lesakako administrari ofiziala (Ira. 18).

Euskara teknikarior behin-behineko lanpostuetarako euskara proba gero eta gehiago egitea egokitzen ari zaigu azken urteotan, batez ere euskara probak egin eta zuzentzeko eskumena duen Euskarabidearen akreditazio zerbitzuak ez duelako baliabide nahikorik, eta batzuetan udaletatik eskaerak denboraz larri egiten direlako.

Aurten ez dugu berariazko formakuntzarik eskaini, baina honako eskaintza hauek zabaldu ditugu:

- NUKF: "Kalkoak" urriaren 23an eta "Euskaltzaindiaren webgunea eta hizkuntza baliabideak" azaroaren 13an. Guk dakigula, udal langileetako inork ere ez du parte hartu.
- UEMA: Trebakuntza 3. eta 4. HE duten langileentzat (Moodle).
- Zubiarte: Ikastaro trinkoen berri Lesakako Andramari zaharren egoitzakoei.

Udazkenean zaharren egoitzetako langileen euskalduntzearen gaiari heldu diogu.

- Andramari: Enpresa publikoa da eta horrek aukera gehiago ematen dizkigu. Lanpostu guztiek dute HE, baina zaintzaile aunitzen eta sukaldarien kasuan ez da betetzen. Berriki lan hitzarmena sinatu dute eta euskara ikasteko ordu batzuk aurreikusi dituzte. Langileen euskalduntzeari buruzko bilera egin dugu azaroaren 22an.
- Baztan-Bidasoa: Andramarin azaroaren 22an egindako bileran gaia eskualde mailan jorratzea erabaki dugu. Bileran egin dugu abenduaren 9an Baztango, Berako eta Lesakako udal ordezkari eta zaharren egoitzetako arduradunekin. Euskara ez dakiten langileen inguruko datu bilketa egitea erabaki dugu eta Euskarabidera jotzea ikastaroak bertan antola ditzaten.

Ez da suertatu ELE tresnaren aplikaziorik egin behar izatea.

Arloa: ARLO SOZIOEKONOMIKOA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
63. Lanbide heziketaren eta lan munduaren arteko uztardura sustatu, euskaratik.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gaia Nafarroako Mendialdeko euskara zerbitzuekin elkarlanean lantzen ari gara. Dena dela, hemen baino ez gara hasiak urrats batzuk egiten. Apirilaren 13an Toki-Onako lanbide heziketako arduradunarekin bildu ginen. Galdetegi bat bidali diegu Toki-Onako lanbide heziketako ikasleei praktikaldiari buruz. Erantzun gutxi jaso badugu ere, heldu den urtean berriz ere egitekotan gelditu gara. Elkarlanean segitzeko asmoa dugu ikasleek praktikak euskaraz egiteko aukera izan dezaten.		
64. Eskualdeko garapen eragileekin lanketa proiektu berrietan euskara aintzat hartzeko.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Cedera-Garalurrekin elkarlan harremana sortu nahi dugu. Garapen agentearekin harremanetan gara eta enpresen forora gonbidatu dugu. Parte hartzeko interesa agertu bada ere, ezin izan da bileretara etorri. Gaiari plan berria helduko dugu.		
66. Ulerrizketa egitasmoa Bortzirietan aplikatzea azertu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Udan Soziolinguistika Klusterrarekin harremanetan izan gara aukerak aztertzeko. Aldahitz egitasmoaren barneko metodologiak dira “eusle”, “ulerrizketak” eta “uler saioak”. Helburua da lan munduan euskararen erabilerrari eustea eta hizkuntza ohiturak aldatzea. Euskarabideak parte hartzen du Aldahitzen garapen taldean eta galdetu diegu zer aukera dagoen modu pilotuan Bortzirietako enpresaren batean aplikatzeko. Zuzenean proiektu pilotu bat babesteko hizkuntza plana beharko litzatekeela erantzun digute. Gaia hurrengo planerako geldituko da, lan mundua euskalduntzeko estrategiaren baitan.		
67. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzeko dirulaguntzen berri eman eta aholkularitza eskaini.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gai hau 68. jarduerarekin batera landu dugu.		
68. Lan arloan eta enpresetan erabilera planak abian jartzea sustatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Urte hasieran EMUN aholkularitzarekin elkarlanean Bortzirietako enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egitasmo berri bati ekin diegu, eta berehalako emaitza ikusgarririk lortu ez badugu ere, emankorra izanen delakoan gaude. Industria arloko Bortzirietako 10 enpresa handienak bisitatu ditugu eta, oro har, harrera hagitza ona egin digute. Honako enpresa hauetan autodiagnostikoak eta ekintza planak egin dituzte (euskararen erabilera areagotzeko zenbait egiteko paratu dizkiote euren buruari):		
	<ul style="list-style-type: none"> • Arcelor-Mittal Zalain (autodiagnostikoa bakarrik). • Caveo. • Lorpeland. 		

	<ul style="list-style-type: none"> • Martiko. • Parklex-Prodema. • Savera. <p>Euskara areagotzeko egitekoak: errotulazioa, papertegia, harrera, baliabideen planifikaziorako programa, langileen kudeaketa, webgunea, fitxa teknikoa eta administrazioarekiko harremana.</p> <p>Prozesu osoan zehar Euskarabideko dirulaguntza deialdiaren berri izan dute. Ohi baino beranduago argitaratu zen, maiatzaren 9an, eta batzuek interesa agertu bazuten ere, aurten ez dute eskaerarik eginen, bai ordean heldu den urtean. Euskara mankomunitatetatik aholkularitza eta elkarlana eskaini dizkiegu.</p> <p>Maiatzaren 21ean Bortzirietako enpresen foroa antolatu genuen eta hagitz baikorki baloratu genuen. Euskarabideko arduradunak gonbidatu genituen eta enpresetako ordezkariak begi onez ikusi zuten aitzinera segitzea.</p> <p>Urriaren 21ean bigarren enpresen foroa antolatu dugu eta hau ere baikorki baloratu dugu, nahiz eta enpresen aldetik ordezkariak handitzeko tartea baden oraindik.</p>			
69. Ostalaritza eta merkataritza establezimendu berriak ireki aitzinetik errotuluak, paisaia linguistikoa, euskaraz lan egiteko baliabideak eta irizpideak eskaini, udalekin elkarlanean.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>ERDIZKA</td> </tr> </table> <p>Gaiari ezin izan diogu heldu.</p>	BAI	EZ	ERDIZKA
BAI	EZ	ERDIZKA		
70. Ostalaritza eta merkataritza arloko eragileak aktibatu, bezero eta erabiltzaileekiko harremanean lehen hitza euskaraz izan dadin.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>ERDIZKA</td> </tr> </table> <p>Eragileak aktibatzea Euskaraldiarekin lotu izan dugu eta heldu den urteko maiatzean izanen da hurrengo edizioa.</p>	BAI	EZ	ERDIZKA
BAI	EZ	ERDIZKA		
71. "Herrian erosi, euskaraz erosi" egitasmoa garatu, material eta zerbitzu eskaintza zabaldu. Euskaraz barra-barra egitasmoa sustatu horretarako aukera badago.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>ERDIZKA</td> </tr> </table> <p>AHIZE aholkularitzaren bidez egiten dugu sustapen lana. Aurten Berako eta Lesakako ostatu eta jatetxeetan banatu ditugu euskarriak. Bisitak probestu ditugu diagnostikoa egiteko eta euskara ez dakiten langileei oinarrizko ikastaroa eskaintzeko. Memoria txostena urtarrilaren 24a baino lehen jasoko dugu.</p> <p>Bertzalde, udan eta udazkenean harremanetan izan gara Euskarabidearekin. Euskaraz barra-barra zuzenean sustatuko omen dute eta Bortzirietan egiteko asmoa dute. Gure sustapen zerrendak eurekin parkatu ditugu.</p>	BAI	EZ	ERDIZKA
BAI	EZ	ERDIZKA		
75. Turismo arloko eragileekin hizkuntza irizpideak landu (informazioa guneean, bisita gidatuetan, argitalpenetan...): Baztan, Malerreka eta Bortzirietako euskara zerbitzuen artean.	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>ERDIZKA</td> </tr> </table> <p>Baztan eta Malerreka euskara zerbitzuekin bildu gara eta gaia elkarrekin lantzea proposatu diegu. Halere, ez dirudi interes handirik sortu duenik, ezta inolako lehentasunik duenik. Ez dugu bertzerik aitzindu.</p>	BAI	EZ	ERDIZKA
BAI	EZ	ERDIZKA		
	<table border="1"> <tr> <td>BAI</td> <td>EZ</td> <td>ERDIZKA</td> </tr> </table>	BAI	EZ	ERDIZKA
BAI	EZ	ERDIZKA		

76. Bisitari eta turistei euskararen berri emanen dieten euskarriak sortu eta zabaldu, euskara (agurrak, esapide laburrak...) erabiltzera bultzatuz; kasu batzuetan UEMArekin elkarlanean.	<p>“Ongi etorri, hemen euskaraz bizi gara!” eskuorria berrargitaratu genuen, zuzenketa batzuk eginda, Baztan eta Malerrekako zerbitzuekin elkarlanean. Papereko bertsioaz gain, mugikorretara edo edozein gailutara deskargatzen ahal den bertsio interaktiboa ere prestatu genuen. Banaketa Aste Santuaren aitzinetik egin genuen.</p> <p>Horrez gain, UEMAk antolatzen duen “Bertatik bertara” kanpainan lagundu dugu, batez ere komunikazioan eta zabalkundean.</p> <p>UEMArekin elkarlanean aritu gara <i>Bertatik bertara</i> kanpainaren zabalkundean. Mahai gainekoak banatu ditugu eta komunikazioan parte hartu dugu.</p> <p>Berako Udalari laguntza eskaini diogu Ibardingo turismo bulego berrian jarriko dituzten paneletako testuak eta toponimoek zerranda zuzentzen.</p>		
77. Euskara ardatz izanen duten bisita gidatuak antolatu eta euskarriak sortu. Bertzelako bisita gidatuetan euskarari buruzko aipamenak txertatu (Baztan-Malerreka-Bortzirriak).	BAI	EZ	ERDIZKA
Lan arloko egitasmoen topaketa	<p>Gai hau zenbait eragileri, turismo nahiz euskara arlokoak, aurkeztu badiegu ere, ez dugu inolako erantzunik izan eta oraingoz ez dugu aitzinera egin.</p>		
	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p>Topaketa Bergaran egin dugu, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako erakundeetako euskara teknikariak bildu gara, bereziki udal mailakoak, aztertzeke enpresa munduan euskararen erabilera sustatzeko elkarlanean zer egiten ahal dugun.</p> <p>Bigarren bilera urriaren 3an egin dugu. Batetik, goiko erakundeetara jotzea erabaki dugu (EJ, Euskarabidea eta Foru Aldundiak), eta koordinazio horretan parte hartu eta dinamizatzeko eskaera egin diegu. Bertzetik, honako gai hauetan sakontzekotan gelditu gara: etorri berriak, praktikak eta eragiteko sektoreak.</p> <p>Bortzirietako eta Oarsoaldeko euskara teknikariek etorri berrien gaia lantzeko arduraren hartu dugu eta Oartzunen bildu gara azaroaren 15ean eta abenduaren 18an, eta dokumentu bat landu dugu.</p> <p>Hurrengo bilera 2025eko urtarrilaren 23an egingen dugu.</p>		

Arloa: INGURUNE DIGITALA		Lehentasuna: BAXUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
78. Herritarrek eta entitateek programa informatikoak, softwareak, aplikazio informatikoak eta sare sozialak euskaraz erabiltzeko informazio eta sentsibilizazio kanpainak.	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p>Teknologia berriak eta euskara seriaren hirugarren bideoa egin dugu, mugikorrek euskaraz paratzeari buruz: https://www.youtube.com/watch?v=7Khu2gaWml4</p> <p>Hedapenerako albistea argitaratu dugu gure webgunean eta sare sozialetan zabaldu dugu. Tokiko hedabideetara bidali dugu albistea, baina ez du oihartzunik izan.</p>		

	Elaide.eus webgunean ere argitaratu da. Ikustaldiak: 54		
79. Euskarazko ingurune digitalaren erabileran trebatzeko ikastaro eta tailerrak eskaini.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Urriaren 19an Sarean Euskaraz programaren baitako ikastaroa antolatu da Beran. Euskarabidea da ekimenaren antolatzailea eta euskara mankomunitateak tokia lortzeko eta sustapenerako laguntza eskaintzen du. Aurten Berako Barraskilo elkartearekin harremanetan izan gara eta galdetu diegu zein ikastaro zuten gogoko. Pribatutasunari eta mugikor bidezko argazkilaritzari buruzko tailerrak aukeratu dituzte. Pribatutasunari buruzkoa bertze toki batean hitzartua zuten guk aukeratu genuen egunean eta azkenean argazkilaritza ikastaroa antolatu genuen Oier Fuentesekin. 10 lagunek hartu zuten parte, 8 (EMA) eta 2 (GIZ). Gazte batek eta gehienak 40 urtetik gorakoak.		
80. Merkatarari, elkarte, enpresa, norbanako, etab.en webgune eta aplikazio informatikoak euskaraz egon daitezen aholkularitza (eta dirulaguntzak).	BAI	EZ	ERDIZKA
	Otsailaren 20an hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza deialdia onartu zen. Horren berri eman genuen webgunean eta sare sozialetan. Epea bukatuta eskaera bakarra jaso dugu Beratik: Xulufraia jantzi dendarena. Errotulu nagusia euskaraz paratzeagatik dirulaguntza eman zaio (egin duen gastuaren % 50).		

Arloa: TOKIKO KOMUNIKABIDEAK		Lehentasuna: BAXUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
81. Eskualdeko komunikabideentzako dirulaguntzak kudeatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Xorroxin Kultur Elkartearekin eta Ttipi-ttapa Fundazioarekin urte hasieran dirulaguntza hitzarmenak berriak; dirulaguntzak tramitatu eta ordaindu dira urte bukaerarako.		

Arloa: KULTURA		Lehentasuna: ERTAINA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
82. Mankomunitateak herrietan antolatzen dituen kultur ekitaldiak bertako eragileen esku uzteko ibilbidea egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Arantza: udal ordezkaria arduratu da ekitaldien antolaketaz. Mankomunitateak sustapenarekin lagundu du eta zenbait ekitaldi finantzatu ditu. Bera: "Uscaldunac garen ezquero" ekimenaren 5. edizioaren antolaketan parte hartu dugu, Berako Udalarekin elkarlanean. Mankomunitatea komunikazioaz bakarrik arduratu da. Antolaketa eta ordainketa udalaren gain. Azaroak 29, Mikel Lakasta eta Mattinen hitzaldi marraztua Aita Dornakuri buruz.		

	<p>Etxalar: Altxata kultur elkarteak arduratu da ekitaldien antolaketaz. Mankomunitateak sustapenarekin lagundu du eta zenbait ekitaldi finantzatu ditu.</p> <p>Igantzi: udal ordezkaria arduratu da ekitaldien antolaketaz. Mankomunitatea komunikazioaz eta zenbait ekitaldi finantzatzeari arduratu da.</p>		
83. Kultur taldeekin hizkuntza irizpideak landu eta kultur taldeek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Landu gabea (ikus 91. Jarduera).		
84. Euskarazko kultura prestigiatu eta herritarrek euskarazko ekitaldietan parte har dezaten ekimen eta kanpainak, bertze eragile batzuekin elkarlanean.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gai honi ez diogu heldu eta hurrengo planerako geldituko da.		
85. Euskarazko kultur sormena sustatzeko, kultur talde eta sortzaileentzako (gazteentzako) beka.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Sormen bekaren ordezkari Pello Apeztegiaren omenez ikerketa beka antolatzea hobetsi zen. Ikus 5. ildoko ikerketa, garapen eta berrikuntzaren arloa.		
87. Bortzirietako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Hitzarmena berri da; dirulaguntzaren bi zatia tramitatu eta ordaindu dira.		
88. Etxepare literatur sariketa antolatu eta lan sarituak zabaldu (euskara teknikarien saretik).	BAI	EZ	ERDIZKA
	Etxepare sariketarako oinarrien berri eman genuen. Guzira 31 lan aurkeztu ziren eta lan saritua Mamuki albuma da, Maite Rosende ilustratzaileak eta Nerea Ariznabarreta idazleak proposatutako lana. Udazkenean argitaratu da. Teknikarien sarean hala baloratuta, ez dugu jarraituko sari hau antolatzen.		
89. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu liburuen gomendioak eginez, tokiko komunikabideekin eta liburutegiekin elkarlanean (Literatura-Geraldia).	BAI	EZ	ERDIZKA
	<p>Hiru saio antolatu dira Literatura- geraldien baitan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Apirilaren 20an, Beran, "Lurraz beste" liburuaren inguruko solasaldia Garazi Arrula idazlearekin. • Apirilaren 24an, Arantzan, "Azken etxea" liburuaren gaineko solasaldia Arantxa Urretabizkaia idazlearekin. • Apirilaren 26an, Lesakan, "Literatura euskaraz gaur egun" hitzaldia Beñat Sarasolaren eskutik. <p>Hiru saioetan 10-15 lagun bitarte izan dira. Azpimarratzekoa da herrietako irakurle taldeekin nahiz liburutegiekin egiten den elkarlana.</p>		

90. Euskal musikaren gomendioak egin, tokiko komunikabideekin eta musikariek elkarlanean.	BAI	EZ	ERDIZKA
	“Musikaz Blai” 2022an mendialdeko zerbitzuen artean hasitako ekimena gaur egun Elaide egitasmoaren bitartez garatzen da. Hortaz, pertsona ezagunen kantu zerrendak argitaratzen dira hamabortzero webgune horretan, eskualdeak txandakatuz. Aurten Bortzirietan ez zaigu egokitu halako zerrendarik eskatzea.		
Euskarabideak antolatutako “Gora-gora Fest” kultur zikloaren antolaketan lagundu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Udaberrian gurekin harremanetan jarri ziren Euskarabideak kontratatutako ekoizpen enpresatik. Aurten Etxalarren egitea erabaki dugu eta gaia udal ordezkariarekin eta Altxata elkartearekin bideratu dugu. “Ez dago kutxa bat niretzat” antzerki emanaldia azaroaren 10ean izan da, kultur egunen egitarauaren baitan.		

Arloa: ELKARTEAK			Lehentasuna: ERTAINA
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
91. Bortzirietako elkarteetan euskararen erabileraren gaineko diagnosia egin; lehenetsunak zehaztu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ezin izan diogu gaiari heldu. UEMAko teknikariarekin elkarlanean egin asmo dugu, eta lan zamak eragotzi digu elkarteen gaiari heltzea.		
92. Elkarteekin hizkuntza irizpideak landu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ezin izan diogu gaiari heldu. UEMAko teknikariarekin elkarlanean egin asmo dugu, eta lan zamak eragotzi digu elkarteen gaiari heltzea. Eragite lan hau hurrengo planerako geldituko da.		
93. Elkarteek euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Goiko bi jarduerekin harremanetan dago.		

Arloa: AISIALDIA ETA KIROLAK			Lehentasuna: ERTAINA
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
94. Helduentzako aisialdi eskaintzaren azterketa egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gai hau ez dugu garatu. 2023an Udaltopen aurkeztu zen diagnostikorako tresna erabili asmo dugu, baina oraindik ez gara horretan trebatu.		
95. Aisialdi arloko eragileekin elkarlanean, euskarazko aisialdi eskaintza areagotzeko proposamena landu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gai hau ez dugu garatu, aitzinetik diagnostikoa egin beharra dugu.		
	BAI	EZ	ERDIZKA

96. Solaslaguna egitasmoaren baitan antolatzen diren aisialdi jarduerak publiko zabalari eskaini.	Solaslagun egitasmoaren baitan ikasturte honetan jarduera osagarriak honako hauek izan dira: <ul style="list-style-type: none"> • Mintzatxotx (mar. 2). • Bortzirietako mintzodromoa (eka. 7). • Bortzirietako mintzodormoa (aza. 29). Ekaineko mintzodromoa Bor-borrekin eta euskaltegiarekin elkarlanean antolatu zen, eta gonbidapena herritar guztiei zabaldu zitzairen, nahiz eta ez zuen arrakasta handiegirik izan. Azarokoak arrakasta gehixeago izan du eta 17 lagunek hartu dute parte.		
97. Bortzirietako kirol eskaintzan eta kirol taldeetan euskararen erabileraren gaineko diagnostia egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Joan den urtean Beti Gazten eta Gure Txokoan euskararen erabilerari buruzko datu batzuk bildu genituen, baina ezin izan diogu gaiari heldu.		
98. Kirol taldeekin hizkuntza irizpideak landu, euskaraz funtziona dezaten elkarlana, aholkularitza eta laguntza.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Joan den urtean Beti Gazte eta Gure Txokoarekin hizkuntza irizpideen gaia lantzeko saiakera egin genuen, baina ez diogu segidarik eman.		
99. Hezitzaile eta entrenatzaileentzako hizkuntza dinamizazioko prestakuntza teknikoa antolatu eta eskaini, hizkuntza irizpideen eta hizkuntza kalitatearen inguruan.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Udalekuetan lan egin duten begiraleentzako formakuntza egin dugu ekainaren 27an.		

Arloa: GAZTEEN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA		Lehentasuna: BAXUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
100. Euskararen inguruko motibazio tailerrak antolatu, arnaguneen ikuspegitik.	BAI	EZ	ERDIZKA
	UEMAko teknikariarekin adostu dugu tailerra ematea eta saiakera egin dugu Berako Barraskilo gazte taldearekin. Interesa erakutsi badute ere, azkenean ezinezkoa izan da gutxieneko parte hartzea bermatzea eta tailerra aitzinxeago antolatzekotan gelditu gara.		
101. Gazteen intereseko ikastaro, tailer, saio, eta gisakoak antolatu, euskararen erabilera eta motibazioa lantzeko.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Bixitailerrak egin genituen (Ikus 8. Jarduera) eta UEMArekin motibazio tailerrarekin lotu nahi genuen jarduera hau.		
102. "Irakurritz gozatu" egitasmoan parte hartu ("Gaztezulo" aldizkaria).	BAI	EZ	ERDIZKA
	Aurkezpenak urtarrilean egin ditugu. <ul style="list-style-type: none"> • DBH4ko 69 ikasle harpidetu dira Beitu! agerkari digitalera. • BT2ko eta heziketa zikloetako 77 ikasleek ikasgelan hartu zuten GazteZuloko lehenbiziko 2 aleak. Aurkezpenen ondotik 74 ikasleek eman zuten izena GazteZulo 		

	<p>etxean jasotzeko, baina otsaileko alea bidali ondotik, 16 ikaslek baja eman zuten. Beraz, 58 ikaslek hartu dituzte martxotik maiatzera bitareko hiru zenbakiak. Balorazio txostena bidali digute.</p> <p>2024-2025 ikasturteari dagokionez, aurkezpena egin asmo genuen abenduaren 11n Toki-Onan; baina aldizkariak ez ziren garaiz ailegatu eta 2025ko urte hasierarako utzi dugu.</p>
--	--

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
104. Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Aurten Bidasoa 2028-2023 dokumentalaren emanaldia antolatu dugu Lesakan, maiatzaren 19an. 50 lagun inguru bertaratu dira eta dokumentaleko protagonistak eta harrera sarekoak izan ditugu aurkezpenean eta solasaldian. Ekitaldia maiatzaren 25eko aniztasun besta girotzeko baliatu dugu.		
105. Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna ("Mugarik Gabe"ren ondorengoa).	BAI	EZ	ERDIZKA
	Maiatzaren 25ean Bortzirietako hizkuntza aniztasunaren besta ospatu genuen eta arrakastatsua izan zen. Ekitaldi nagusiak: Ongi etorri Berara eta bisita gidatua, dantza tailerra, janari dastaketa eta kontzertua. Laburpen bideoa aurkeztu berri dugu. Aniztasun taldeak 10 bilera egin ditu joan den urteko azarotik besta antolatzeko. Azaroaren 20an aniztasun taldea bildu da berriz ere 2025eko egitasmoak erabakitzeko.		

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA		Lehentasuna: ALTUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
106. Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilia, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Erroldatzen diren herritarrei UEMAREN esku orria eta gure bideoa eskuratzeko prest ditugu, baina erroldatzeko unea gure kontrolatik ihes egiten digu. Jarduera egintzat emanen badugu ere, euskarriak prest daudelako, ez dakigu sistematikoki egiten ote den. Etorkizunean bertze bide eta jarraipen sistema bat asmatu beharko ditugu. Ongi etorri bideoa 2025ean berrituko dugu. Atal honetan egin ez dugun gastua aniztasun bestako gastu gehigarria estaltzeko erabili dugu.		
108. Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrak gonbidatuta.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Maiatzaren 25eko aniztasun bestaren barne egin genuen, Beran. Hagitz polita izan zen. 8 etorri berri bertaratu ziren eta telegram bidezko aldibereko itzulpena erabili genuen.		
	BAI	EZ	ERDIZKA

109. Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.	Maiatzaren 25eko aniztasun bestaren barne egin genuen, Beran. Hagitz polita izan zen. 8 etorri berri bertaratu ziren eta telegram bidezko aldibereko itzulpena erabili genuen.		
112. Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sareari dagokionez.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Erraten ahal da hizkuntza eta kultura aniztasun taldeak bete duela funtzio hau neurri batean.		
Hizkuntza politika eta etorri berriei harrera. Quebec-eko eta Euskal Herriko esperientzien elkar trukea. Apirilaren 9ko topaketa online	BAI	EZ	ERDIZKA
	Miren Azkarate EHUko doktorea gurekin harremanetan jarri zen, gure esperientziaren berri topaketa horretan azaltzea eskatzeko. Topaketa interesgarria izan zen, Euskal Herriko bertze aditu eta ikerlari batzuekin eta Quebec-eko aditu eta ikerlariekin ezagutza eta ideak partekatzeko. Aurkezpena frantsesez egin genuen.		
Udaltop udal euskara teknikarien topaketa. "Nola erakarri etorri berriak euskarara?" jardunaldia Bortzirietako esperientziaren berri ematea; "Etorri berriak euskarara erakartzeko Bortzirietan zer?" aurkezpena.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Euskarabidetik gurekin harremanetan jarri ziren aurkezpena presta genezan. Gero zuzenean Udaltopoko antolakuntzarekin harremanetan izan gara. Jardunaldi interesgarriak izan dira eta urtero bezala gure lanerako baliagarriak izanen zaizkigun informazio eta ideiekin bueltatu gara. Aurkezpena ongi joan da.		

Arloa: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK		Lehentasuna: ERTAINA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
113. Herritarren eskaerak bideratu eta erantzun egokia eman; behar diren aldaketak egin hizkuntza eskubideak bermatzeko.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Herritar batek jo du mankomunitatera hizkuntza eskubidearen urraketa baten inguruan aholkularitza eskatzeko, eta Hizkuntza Eskubideen Behatokia bideratu dugu.		
114. Herritarrek administrazioarekin harremanetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzeko lanean eta elkarlanean segitu, UEMAekin eta Nafarroako gainerako euskara zerbitzuekin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Nafarroako UEMAko herrietan aurten lanketa berezia eginen da Animsarekin eta dirubilketa exekutiboa egiten duen Geserlocal enpresarekin. Ikus 54. jarduera.		
116. Bera eta Lesakako liburutegietako arduradunen lanpostuetan HE ezarriko dela bermatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Gaiari jarraipena egiten diogu, baina oraingoz hizkuntza eskakizuna jarri gabe dute bi lanpostuek. Nafarroako Gobernuako departamentuek beren hizkuntza planak argitaratuak dituzte, eta horien arabera 2024 urtea bukatu orduko zehaztu behar dute zein lanpostutan izanen den beharrezko euskaraz jakitea, eta zeinetan izanen den merezimendua.		
117. Hizkuntza eskubideen gaineko sentsibilizazioa: Behatokiarekin gaia jorratu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ez diogu gaiari heldu.		
	BAI	EZ	ERDIZKA

118. Osasun arloaren diagnosis egin eta plantilla euskalduntzeko eskaera bideratu.	Arreta berezia jarria dugu Arantza-Igantziako erizain lanpostuan, ez duelakoz hizkuntza eskakizunik. Aitzineko erizainak erretiroa hartu zuen urte bukaeran eta ordezkioak euskaraz jakin dezan eskaerak egin dira. Lanpostu hori euskaldun batek bete duela jakin dugu, baina ez zaio eskakizunik ezarri.		
119. Osasun zentroan euskararen kudeaketa plana sustatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Nafarroako Gobernu departamentuetako erabilera planen baitan, erabilera planak jarri dira abian zenbait osasun zentrotan, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin. Lehen bilera egin zuten ekainean gaia aurkezteko, eta irailetik aitzinera helduko zaio planari. Teknikariotako batek talde eragilean parte hartzeko aukera izanen dugu. Bilera urte bukaeran izanen zela aurreikusi zen, baina oraindik ez dugu deialdirik jaso.		

Arloa: IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA		Lehentasuna: BAXUA	
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
122. Bortzirietako ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	2023-2024 ikasturteko matrikulazio datuak bildu ditugu, baita bilakaera aztertu ere. 2024-2025 ikasturteko matrikulazio datuak bildu ditugu eta azterketa urtea bukatu aitzin egin asmo dugu.		
123. Bortzirietako euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Matrikulazio datuak bildu ditugu, baina txostena egiteko dugu.		
126. Hizkuntzari buruzko jarrera eta balioei buruzko ezagutzan sakontzeko ikerketa kualitatiboa.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ez dugu aurten eginen, heldu den planerako utziko dugu. Neurri batea, PAZ bekaren baitan, jarreraren gaia landu dugu.		
127. Ikerketarako dirulaguntza eta baliabideen berri eman.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ez dugu deus berezirik egin horretarako.		
130. Egoera soziolinguistikoari buruzko saioa egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Martxoaren 19an egin dugu Lesakan eta ez da sobera arrakastatsua izan. Saioa prest dugu eta herriz herri zein plan berria diseinatzerako egiten ahal dugu, betiere ziurtatuta gutxieneko bertaratzea. Saioa egoera soziolinguistikoari buruzko txostena aurkezteko egin genuen. Gure webgunean atal finkoa eskainia diogu.		
131. Egoera soziolinguistikoari buruzko artikulua prestatu.	BAI	EZ	ERDIZKA

	“Bortzirietako bilakaera soziolinguistikoa aztergai Euskara Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren atarian” artikulua BAT aldizkariaren abenduko alean (133. zenbakian) argitaratu da.		
132. Herritar eta eragileen kontsultei erantzun.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Bi ikasleren kontsultak erantzun ditugu. Egoera soziolinguistikori buruzko txostena webgunean argitaratu dugu eta hemendik aitzinera horra bideratuko ditugu kontsulta eskaerak.		
“Euskararen egoera gaur egun. Zer diote datuek?” Iñaki Iurrebaso soziologoaren eta UEMAko ikerketa arduradunaren solasaldia.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Solasaldia antolatzeko aukera eskaini digu UEMAK. Iñaki Iurrebasok berezi bere tesiari buruzko datu eta ondorio nagusiak aurkeztu ditu. Hagitz arrakastatsua eta argigarria izan da.		



Ildoa: CORPUSA

Arloa: TOKIKO HIZKERA, TOPONIMIA ETA OIKONIMIA		Lehentasuna: BAXUA
JARDUERAK	EBALUAZIOA	
134. Bortziritako hizkeraren ezaugarri nagusiak biltzen dituen argitalpen dibulгатiboa hedatu (gai hau 13 jarduerarekin lotua dago, ikastetxeek erakusten duten interesaren arabera).	BAI	EZ
	Bortziritako hizkerari buruzko trebakuntza egin dute aurten Bortziritako sei ikastetxek. Ikastaro horretatik sortutako materiala izanen da argitalpen dibulгатibo hori egiteko oinarria. 2025eko planean eta aurrekontuan aurreikusi da jarduera hau.	
Arloa: HITANOA		Lehentasuna: BAXUA
JARDUERAK	EBALUAZIOA	
138. Hitanoaren erabilera sustatu belaunaldien arteko topaketen bitartez.	BAI	EZ
	Hitzaldia antolatu dugu Beñat Muguruzarekin eta parte hartzea hagitza ona izan da, 20 lagun bertaratu dira. Gainera, bizi eta interesgarria izan da eta hurrengo planerako ideiak atera ditugu. Albistea .	



Ildoa: KUDEAKETA

Arloa: GIZA BALIABIDEAK ETA TALDE TEKNIKOAK			
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
142. Lan osasuneko prebentzio plana eguneratu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Prebentzio teknikariarekin (Quiron) bilera egina.		
143. Langileen osasun azterketak egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Hiru langileek apirilean eginak.		
144. Telelanerako egokitzapen teknikoak egin eta bitartekoak zehaztu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Telelana praktikan jarri ahal izateko IP finkoa eskaintzen duen konexio aukera bat behar da, Movistarrek eskaintzen ez duena. Urte bukaeran Arantzan zuntza kontratatzeko aukera ireki da eta horretarako eskaera egina da.		

Arloa: PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA			
JARDUERAK	EBALUAZIOA/JARRAIPENA		
146. Jarraipen taldea osatu (euskara batzordea, euskalgintza, talde tekniko...) eta jarraipena egin plan estrategikoari.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Urteko lehen bilera uztailaren 12an egin da eta bigarrena batzorde honen azkena, azaroaren 26an.		
147. Plangintzaldiaren amaieran, plan estrategikoaren ebaluazioa egin.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Aurtengo jardura planaren memoria osatuta, plan estrategiko osoaren ebaluazioa eginen da abendu eta urtarril bitartean.		
148. Hurrengo plangintzaldirako gogoeta prozesua prestatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin eginen da hurrengo plan estrategikoa prestatzeko gogoeta prozesua. Hori nola eginen den adostua dago, baina prozesua urtarriletik uda bitartean eginen da.		
149. Urteko jardueren plana eta aurrekontua prestatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Teknikariok plana eta aurrekontua urrian prestatu genituen. Aholkularitza Batzordearekin urriaren 24ko bileran landu genuen, eta Batzorde Erabakitzailearekin urriaren 30eko lan bileran eta azaroaren 7ko osoko bilkuran. Mahai gainean gelditu zen eta abenduaren 23an onartu zen, tartean bertze lan bilera bat eginda.		
150. Urteko ebaluazioa prestatu eta aurkeztu.	BAI	EZ	ERDIZKA

	Dokumentu honetan biltzen da urteko ebaluazioa eta Batzorde Erabakitzailearen urtarrileko bileran aurkeztuko da.
--	--

Arloa: ERAKUNDEAREN EGITURA			
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
153. Nafarroako mapa lokal berriaren gauzapenean eta Baztan-Bidasoa eskualdeko egituraren sorreran parte hartu. Jarduera hau horrela jaso zen 2020an, plana egiterakoan, baina gaur egun hartu duen bidea hartuta, Bortzirietako mankomunitate bakarra sortzeko prozesuarekin lotuko litzateke.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Mankomunitate bakarra eratzeko prozesuan aitzinera pausoak izan dira. Urriaren 21ean aurkeztu zen zerbitzu mankomunitate berriaren egitura eta funtzionamendua jasotzen dituen dokumentuaren zirriborroa. Horrez gain, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea desegiteko erabakia hartu zuen Batzorde Erabakitzaileak azaroaren 7ko bileran. Datozen hilabeteotan urrats nabarmenak egitea aurreikusten da.		
156. Egoitza berria egin eta euskara zerbitzua bertara eraman.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Aitzineko jarduerarekin lotuta, hasierako proposamena izan da euskara zerbitzuak Arantzan jarraitzea eta Mankomunitatearen administrazioa eta erabaki organoak nahiz berdintasun eta hondakin zerbitzuak Alkaiagan kokatzea, behin-behineko Garalurren egoitzan. Teknikariok eskatu dugu euskara zerbitzua ere han egon dadila.		
157. Euskararen espazioa abiatu eta kudeatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Aitzineko gaiarekin lotua dago.		

Arloa: EUSKALGINTZAREKIN ELKARLANA			
JARDUERAK	EBALUAZIOA/JARRAIPENA		
159. Euskalgintza sozialaren balizko antolamendu berriarekin elkarlan formulak adostu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Bor-bor talde eragilean parte hartzen aritu gara, baina udazkenetik aitzinera ez gara bileretara joan, hasieratik aurreikusi baitzen gure parte hartzea foro horretan epe baterako izanen zela. Halere, mankomunitatearen eta Bor-bor taldearen arteko elkarlana nolakoa izanen den definitzeke dago.		
160. Bortzirietako era guztietako eragileekin elkarlanean aritu, bereziki euskalgintzakoekin (euskaltegia, tokiko hedabideak, ikastetxeak, bertso eskola, etab.); elkarlan horretan sakondu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Behar izan diren gaietarako elkarlanean aritu gara.		
	BAI	EZ	ERDIZKA

<p>161. Euskal Herrian hizkuntza normalizazioan ari diren eragileekin elkarlanean aritu, bereziki UEMArekin eta Nafarroako euskara zerbitzuen sarearekin.</p>	<p>Behar izan diren gaietarako elkarlanean aritu gara. Azpimarratzekoa da teknikarien saretik euskara zerbitzua duten toki entitateetako udal ordezkariekin abiatutako elkarlana, Euskarabideari eskatzeko bi aldeen arteko harremana eta finantzazioa hobetzeko. Oraingo bi teknikarik (bat Bortzirietakoa) eta sei hautetsik osatutako lantaldea arduratuko gara prozesu hau aitzinera eramateaz. Ekainaren 28an egin zen lehen bilera Euskarabideko arduradunekin. Ondoren, hautetsien lantaldea eta teknikariak azaroaren 28an bilduko dira berriz.</p> <p>Nafarroako euskara teknikarien sareak gogoeta prozesua egin du aurten eta datozen lau urteetarako plan estrategikoa onartu du. Sarearen antolamendua berritu da eta Bortzirietako teknikariok lantalde hauetan arituko gara:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Patri: Aisialdi Lantaldea eta Harremanak eta Komunikazioa Lantaldea. - Urko: Elaide Lantaldea eta Proiektuak Lantaldea. 		
<p>163. Dirulaguntzak kudeatu.</p>	<p style="text-align: center;">BAI</p>	<p>EZ</p>	<p>ERDIZKA</p>
	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmen hauek berritu dira: Ttipi-ttapa, Xorroxin, Garabide, Naf. Bertsozale Elkartea, Etxetik Plazara, Bortzirietako Euskaltegia. - Bor-bor taldearekin hitzarmena egin da <i>Bortzeguna</i> ekimena finantzatzeko helburuarekin. - Dirulaguntza deialdi hauek onartu dira: euskara ikasleentzako bekak, Bai Euskarari Ziurtagiria dutenei, hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzeko dirulaguntza deialdia. <p>Deialdi eta hitzarmenez gainera, dirulaguntza zuzena eman zaio erakunde eta ekimen hauei: Herri Urrats, Korrika, Nafarroa Oinez, Sortzen, Kontseilua eta EHE.</p>		

<p>Arloa: IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA</p>			
<p>JARDUERAK</p>	<p>EBALUAZIOA/JARRAIPENA</p>		
<p>164. Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso.</p>	<p style="text-align: center;">BAI</p>	<p>EZ</p>	<p>ERDIZKA</p>
	<p>PATRI:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskarabidea, Iruñea, ekainak 14: <i>Euskararen Adierazle Sistema</i> - NUKF, Atarrabia, azaroak 28: <i>Ikerketa soziolinguistiko aplikatua zertan den</i> <p>URKO:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontseilua, Gasteiz, urriak 10 eta 11, <i>Ongi etorri euskararen mundura. Harrera jardunaldiak</i> <p>PATRI-URKO:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Topagunea, apirilak 17: <i>Gero eta aldeko gehiago</i> 		

	- Udaltop topaketa, Lasarte-Oria, maiatzak 16 eta 17: <i>Nola erakarri etorri berriak euskarara? Eta, euskaldunok, nola hurbildu etorri berrietara?</i>		
165. Tresna (teknologiko) berriei dagokien trebakuntza jaso (IKTak, administrazio elektronikoa, telelana, bideo komunikazioa, etab.).	BAI	EZ	ERDIZKA
	ITZIAR-URKO-PATRI: - Webgunetik formularioak sortzeko eta kudeatzeko formakuntza, online, IAmetzaren eskutik, martxoak 20		
166. Komunikazioari dagokion trebakuntza jaso.	BAI	EZ	ERDIZKA
	ITZIAR-URKO-PATRI: - Mailtrain tresnari buruzko trebakuntza, online, IAmetzaren eskutik, otsailaren 15ean		
167. Mankomunitatearen zereginetarako sortzen diren beharrei erantzuteko trebakuntza (adibidez, prozedura administratiboa, datuen babesa, etab) jaso.	BAI	EZ	ERDIZKA
	PATRI: - NUKF, <i>Denboraren planifikazioa eta erabilera eraginkorra</i> , ekaina eta uztaila bitartean, lanordutik kanpo.		
168. Zehar lerroko gaietako dagokien trebakuntza jaso: generoa, ingurumena, etab.	BAI	EZ	ERDIZKA
Pello Apezetxea ikerketa beka	BAI	EZ	ERDIZKA
	"Bortzirietako hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzeptzioak eta jarrerak" ikerlana, Paula Laitak, Jon Martinek eta Ane Osuak osatutako lantaldeak aurkeztua, izan zen beka lortu zuena. Ikerlanaren bukaerako memoria aurkeztu zuten uztailan, eta ondoren bekaren prozedurarekin zerikusia duten gainerako urratsak osatu dira. Lana argitaratuko da Euskaltzaindiaren bitartez. Beka deialdi hau berriz egingen da 2027an.		
169. Administrazio elektronikoa ezarri: espediente elektronikoa garatu eta herritar nahiz erakundearen dokumentazioa elektronikoki tramitatze bidean sakondu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Administrazio elektronikoa erabileran urratsak egiten ari gara. Gero eta erakunde eta norbanako gehiagorekin egiten dira harremanak bide horretatik. Halere, espediente elektronikoa ez gara lanean hasi.		

Arloa: KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA			
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
170. Bulegoa, tresnak, altzariak, biltegia... kudeaketa eta mantenu egokia bermatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
	Ohiko moduan kudeatu dira.		

171. Aurrekontuak, kontuak eta diruzaintza kudeatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
Ohiko moduan kudeatu dira. Abenduaren erdi aldera administrariaren lanpostua hutsik gelditu da eta horrek urte bukaerako kudeaketan eragin du. Haren lan premiazkoenak idazkariaren eta teknikariaren artean egin ditugu.			

Arloa: KOMUNIKAZIOA			
JARDUERAK	EBALUAZIOA		
172. Mankomunitatearen komunikazio plana osatu eta gauzatu.	BAI	EZ	ERDIZKA
Aurten bertze urrats bat egin dugu komunikazio arloan. Informazio buletina egiten hasi gara, Mailtrain tresnaren bidez. Bi hilabetero sortzen dugu buletina, tarte horretan webgunean jarritako albisteak oinarri hartuta. 132 harpidedun ditu buletinak. Sare sozialei dagokienez, ez dugu sistematizatu horien erabilera. X sarea ez dugu batere erabili, Facebook zertxobait, eta gehien erabili duguna Whatsapp-a izan da.			
173. Webgunearen egitura eta edukiak eguneratu.	BAI	EZ	ERDIZKA
Webgunean astero albiste bat sortzeko bidea hartu genuen iaz eta hala jarraitu dugu.			

ERANSKINA: TEKNIKARIEK PARTE HARTUTAKO BILERAK, FORMAKUNTZA SAIO NAHIZ JARDUNALDIAK, ETA EKITALDIAK

Urtean zehar izandako bileren zenbaketa da hau. Hurbilpen bat da, ez da erabat zehatza:

NOREKIN		URKO		PATRI		BIEK	
		Lanordutan	L. kanpo	Lanordutan	L. kanpo	Lanordutan	L. kanpo
BEM egiturakoak		1	1	3	2	10	3
Bortzirietako bertze eragileak	Hezkuntza			9		1	
	Euskaltegia	3					
	Bor-borreko Talde Eragilea	1	2	2	4		
	Biziberritze prozesua/dokumentala			2	7		
	Solasean/Topagunea			4	3		
	Aniztasuna		10				
	Kulturantzatasuna R. Barojan				4		
	Lan mundua	16		1			
	Pello Apezetxea Ikerketa Beka	1		5			
	Udalekuak			6			
	Bertzelakoak (taldeak, norbanakoak)	1	1			5	
Bortzirietatik kanpoko eragileak	UEMA	7		9			
	Teknikarien sarea, lantaldeak...	20		17	2	10	
	Topagunea/Euskaraldia/Solaslaguna	6			1		
	Euskarabidea			1			
	Mugaldeko Udalekua			13			
	Bertzelakoak (taldeak, norbanakoak)			1			
GUZIRA		56	14	73	23	26	3

Aparteko ordui dagokienez, 2022ko apirilean udal ordezkariekin egindako bileran adostu zen urtean 50 ordu baino gehiago ez zirela izanen, eta betiere aitzinetik lehendakariari bilera horietan parte hartzeko baimena eskatuta. 2024an Patrik 43 aparteko ordu egin ditu (23 bilera) eta Urkok 46 ordu (14 bilera). Bilera hartan adostutakoaren arabera, teknikariek lanaldi murriztua egin dute uztailean, abuztuan eta abenduan, pilotutako orduak kitatzeko.